

noaia

**Liburutegiaren Astea
begi bistan**

**Andres Bruño Gernikako
bonbardaketaren lekuko
izan zen**

Aginagako jaiak, argazkitan



**Mikel Otaegik Infinitriman lasterketa irabazi du
“Lagun asko egin ditut triatloi munduan”**



**Santu guztietan
aukera zabala**



URTINEA



San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



**BIDAIK
TALDEAN**

NOAOA
BIDAIK

IRTEERA 2020
LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

943 37 36 13 info@noaa.eus **noaa.eus**



**JOSEBA
TAPIA**

**ZUZENeko DISKOAREN
GRABAKETA**

USURBILEN

Urriak 25
Sutegi 20:00 eta 22:30

SARRERAK: 10€ aldeaz aurretik
Usurbilgo Bordatxon, Txirristan
Lizardin eta Noaualn eta egun berean 13€ Sutegin

noaa

Argazkia: Kepa Gonzalez

Albisteak iruditan

80 urteei gorazarre



Norberto Almandoz, Maria Luisa Alonso, Ignacio Alustiza, Eusebia Atorrasagasti, M^a Purificación Beraeche, M^a Milagros Balerdi, Luisa Carrasco, Angel Dominguez, M^a Teresa Errasti, Milagros Irastorza, Jose M^a Lerchundi, Jesus Labaca, Domitila Lopez, Estrella Nuñez, Emilia Salinas, Carmen Toquero, M^a Pilar Urrutia, Juan Ulloa, Lourdes Urquia, Felicidad Urrea, Eusebio Zubiondo eta M^a Dolores Zaldúa herritarrek 80 urte bete dituzte aurten. Gure Pakea Elkartek omendu zituen hilabete hasieran, lagun eta senideekin batera Aginaga sagardotegian. Zorionak! Irudiaren egilea: Lurdes Hueta.

Laburrean

Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa ixtear

Bere "natura" izeneko irudi bilduma bisitatzeko azken egunak dituzue honako hauek. Maria Jesus Etxeberria herritarren argazki erakusketa ostiralera arte izango da zabalik Sutegi kultur etxeko aretoan, arratsaldez, 16:30-19:00 artean.

Tren eta bus ordutegi gehiago eskuragarri

Urriaren 4ko aldizkariarekin banatu genituen tren eta bus zerbitzuen ordutegi berriak NOAUA!-n, udaletxean, Kiroldegian, Saizarren, Eroski Cityn, Potxoenean, Sutegi udal liburutegian, Alamandegian eta Arraten eskura ditzakezue.

Negu girora egokitzeko ordu aldaketa

Europar eztabaida gaia den arren, erabakirik hartu ezean ordua aldatzen segibeharko dugu seihileroko. Negu girora egokitzeko, urriaren 27ko goizaldean, erlojuaren orratzak ordu bate atzeratu beharko ditugu. 3:00etan 2:00ak izango dira.

noaUA

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaUA.eus // www.noaUA.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaUA.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaUA.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrerria!



Aritz Gorriti

Irentsi ezinezko egunak

Larunbat goizez etxe ataritik kalera atera eta lezohiko lasaitasuna. Handik gutxira gogorazti zidan okinak; harridura aurpegi horrekin despistatu samar ikusten zuen laugarren bezeroa nintzela. Eta ez farola baten aurka jo nuelako (besteren batek bezala). Urriak 12 zituen, igandez jantzitako larunbata zen.

Espainia, armada, militarren indarra “goresteko” eguna batzuentzat. Egutegiari begira jarri eta 2019an oraindik larunbat hori gorritz seinalatua nolatan ageri den ulertezina zaiguna besteontzat. Hau, eta gorritz seinalaturiko urteko gainerako egunak. Hauek ere estatua finkatu eta irentsi behar ditugun jai egunak. Honetan ere ondo legoke, euskal egutegi propioa izatea; urteko jai egunak ere etxetik bertatik kudeatu ahal izatea eta, abenduaren 3a (Euskararen Eguna) jai egun nazionala izendatzea erabaki ahal izate

tea, adibidez.

Baina erabaki? Nola ba? Erreparatu bestela irentsi ezinezkoak izaten ari diren egun hauei. Mila egunetik gora espetxean daramaten Altsasukoko gazteen aurkako epai bidegabea lehenik, 100 urtera zigortu dituzten Kataluniako buruzagi independentistak bestetik. Taberna bateko liskar batengatik kasu batean, bestean herriari bere etorkizunaz erabakitzeak hitza emateagatik. Hasiera batean bi egoera ezberdin, baina sakonean hari berak lotzen dituen bi mutur.

Ez da kasualitatea Altsasuz oroitzean Katalunia gogoan izatea, edo Katalunia burura eta bihotzera datorkigunean Altsasukoei ere buru eta bihotzetik oroitzea. Batzuek zein bestiek, Euskal Herrian hamarkada luzez bizi izan dugun moduan, horma berarekin topo egin baitute aurrez aurre; “ukitu” ezin den Espainia bakar eta itxuraz “batuarekin”. Eta “espainiartasunaren” ikur diren Konstituzioa, indar ar-

matuak... Urriaren 12an (norbaitek farolaren batetik zintzilik amaitu arren) antzeztu nahi izan zuten moduan, hori baita Espainiak egun existitzeko duen interes edo zentzu bakarra. Toxikoki, baina batuta mantentzea, behartuta, derrihortuta bada ere.

Ahoa itxita eta burumakur egon artean, ez da deus gertatzen. “Normaltasun” batean bizi da “estatua”. “Estatuak” herri desberdinekin duen mendeetako gatazka azaleratzen den unean ordea, une zailetan gertatu ohi den moduan, norbera den modukoa agertzen da. Espainiaren kasuan, prozesu terapeutiko sakona behar lukeen estatua litzateke, “osasun” demokratikoaz ari bagara. Egun hauei erreparatu besterik ez dago.

Soilik haienak diren interesak asetzeko nahi gaituzte. Eta kontuz, gurea sentitzen ez dugun etxe horretatik joan nahi izanez gero, planteatze hutsarekin, burutazio soil bat aski izaten da; eta atea krisketarekin ixten

digute. Halakoetan argi denez, albokoa mendeen hartu nahi duenak, ez du maitasun jarri handirik erakusten. Nola edo ahala indarrez batuta eta kateatuak izan nahi dituen estatua, bere horretan indartsu agertzen bada ere, ahulezia nabaria du.

Espainiak badu kasketa ematen dion haur txikiaren antza. Azken urteotan Kataluniarekin agerian gertatzen ari eta onartezina zaion errealitate bat; ezin du onartu, bere bizkar inor bere bizi proiektu propioa garatzen ikustea. Inork haien menpeko eremutik at bide propioa jorratzen ikustea. Ez du onartzen, eta itxuraz ez du onartuko. Bizi dugun egoera ondo baino hobeto laburbiltzen zuen Gure Eskuk asteleheneko mobilizazioan plazaratu zuen adierazpenak: larrialdi demokratikoan gara.

Eta bistan denez hala segiiko dugu. Espainiatik besterik ezin daiteke espero; irentsi ezinezko egun gehiago.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegozo | Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Hauteskundeetako mahaikideen zozketa

Hurbiltzen doa azaroaren 10eko Espainiako Gorteak berritzeko hauteskundeen errepikapena. Asteartean argitaratu zituen Estatuko Aldizkari Ofizialak Gipuzkoatik hitzordu honetara aurkeztu diren hautagaien zerrendak. Apirilaren 28ko deialdian bezala, Gipuzkoako EHBilduren Diputatuen kongresurako zerrendaburua Usurbilgo alkate ohi Mertxe Aizpurua Arzallus izango da. Aulki Zuriak-en, Gipuzkoako hirugarren sena-

tarigaia Luismari Ormaetxea Santsiñena izango da.

Zerrendak argitaratuta, azaroaren 10ean hautesleketan lan egitea egokitu zaien mahaikideen zozketa egingo da, Usurbilgo Udalak ostegunerako (urriak 17) 18:00etan iragarri duen ezohiko osoko bilkuran. Ordenantza fiskalen gaiarekin batera, Madrilgo Diputatuen Kongresu eta Senatua berritzeko bozketa egunean hautesleketan egotea egokituko zaien lehendakari,

bokal eta haien ordezkioak hautatuko dira (72 lagun gutxira) zozketa bidez. Zozketa egin ostean, hautatuei Udal-tzaingoaren bidez helduko zaizue jakinarazpena.

Deialdien egutegia

Gogoan izan bestalde, posta bidezko bozka eskatzeko epea zabalik dagoela:

■Urriak 17: hautesleketako mahaikideen zozketa, udalbatzaren ezohiko osoko bilkuran.

■Urriak 28-azaroak 3: posta bidezko bozka jasotzeko epea.

■Urriak 31: posta bidez bozkatzea eskatzeko azken eguna Correoseko bulegoan.

■Azaroak 1-8: hauteskunde kanpaina.

■Azaroak 6: posta bidez bozkatzeko azken eguna.

■Azaroak 10: Espainiako Gorteak, Madrilgo Diputatuen Kongresua eta Senatua berritzeko hauteskundeak.

■Abenduak 5: Espainiako Gorteen osaera.

Zubietako hitzarmeneko aldaketak urriaren 21ean sartuko dira indarrean

Aldaketak izango dituzte zubietarrek egunerokoan jasotzen dituzten zerbitzuetan, datorren astelehenetik aurrera. Zubietako Herri Batzarrak Usurbil eta Donostiako udalekin elkarlanean landu eta udaberrian lau urterako (beste lau urtez luzagarria) sinatu zuten lankidetzak hitzarmenak jasotakoa gauzatzera doaz. Argibideak eskaintzeko herri bilera egin zuten urriaren 9an Kaxkapen.

Orain arte bi udalek, Usurbilgoak eta Donostiakoak Zubietari eskaintzen zizkieten zerbitzuak koordinatu, ardurak banatu eta eraginkortzeko, zerbitzu bakoitzak nork eta nola eskainiko duen zehazten du, aurreko legealdian hiru erakundeek eginiko bilera tekniko eta politikoetatik jaio den hitzarmenak. Aldaketa esanguratsuena hondakinen kudeaketari lotutakoa izango da. Zubietako hondakinen kudeaketaren ardurara Usurbilgo Udalaren esku geratuko da hilaren 21etik aurrera.



Argibideak eskaintzeko herri bilera egin zuten urriaren 9an Kaxkapen.

HONDAKINEN KUDEAKETA

“Zubietako hondakinen kudeaketaren ardurara Usurbilgo Udalaren esku geratuko da hilaren 21etik aurrera”

Edukiontzia kendu eta Etarte eta Barazarreko Garbitxikiak baliatu ahalko dituzte zubietarrek. Guneok erabiltzeko giltza eskuratu beharko da, ostiralean

16:00-19:00 artean Kaxkapen, edo larunbat goizean, 11:00-13:00 artean leku berean. Baita bestela, Usurbilgo Udalaren Atez Ateko Bulegoan. Donostia aldean bizi diren zubietarrei hondakinak atez ate biltzea nahi duten galdetuko die Usurbilgo Udalak.

Tasen ordainketa, nork bere udalerrian

Ur hornidurari dagokionez, Kaxkoa Añarbeko urak horni-

tuko du, Learritza pasealekuko bizilekuak Usurbilgo urak. Zerbitzuon truke ordaindu beharreko tasak nork bere udalerrian ordaindu beharko ditu, nahiz eta zerbitzua beste herriak eman.

Zubietan abian jarriko diren aldaketen jarraipena egiteko batzordea osatu dute aipatu hiru erakundeek.

Ia 10.000 euro bilduta, erraustegiaren kontrol independenterako

Zubietan Lantzenek nazioarteko zientzialarien laguntzaz abian duen Zubietako erraustegiaren kutsagaiak neurtzeko ikerketa independenterako eginiko laguntza emateko deia arrakastatsua suertatzen ari da. Aste hasierarako ia 9.700 euro bilduak zituzten. Baina 13.000 euro behar dira gutxienez. Diru ekarpenak bideotatik egin daitezke:

vkm.is/errastegiarenkontrola

Zubietan Lantzen elkartearen kontu zenbakia: ES45 2095 5069 06 1064132086.

Usurbilen ere Altsasukoak aske nahi dituzte

Espainiako Auzitegi Gorenak, Auzitegi Nazionalak esandakoa berretsi zuen joan den astean; 79tik 51 urtera jaitsi arren, Altsasuko gazteentzako espetxealdia agindu zuen. Auzitegien erabakia ezagutzera eraman eta berehala hamaika mobilizazio egin ziren Euskal Herrian. Usurbilgoa hilaren 10ean Ernaik deituta, Mikel Laboa plazan. Urgentziaz deitutako elkarretaratzea izan arren, jendetsua izan zen mobilizazioa. “Non dago justizia?” galdetzen zuten. Argi adierazi zuten beste behin, “ez dugu onartzen ab-



Altsasuko gazteak aske uztea eskatzeko eginiko elkarretaratzea.

soluzioa ez den beste epairik”. Altsasukoak aske nahi dituzte. “Besarkada bat gazte eta beraien senide eta lagunei. Denok

gara Altsasu, denak etxera! Altsasukoak askatu!”, eskatu zuten, Altsasuko herriak “jasandako muntai politiko, judi-

zial eta mediatiko hau” salatzearekin batera.

Duintasunaren martxara

Espainiako Auzitegi Gorenaren epaiarekin “espainiar estatuak bere izaera antidemokratikoan berresteko asmoa baino ez duela erakutsi du”. Urriaren 26rako Altsasuko Gurasoak eta Altsasuko Aske Taldeak, goizean Altsasun hasi eta 17:00etan Iruñeko Nafarroako Auzitegi atarian elkarretaratze batekin amaituko den “duintasunaren martxa”ri babesa adierazi zioten.

12 kontratazio berri Beterri-Buruntzan

Eusko Jaurlaritzaren 2019ko Tokiko Enplegu Planaren diru-laguntza-
ren baitan, udal brigadetan lan anitzeko operario gisa jarduteko 12 lanpostu berri iragarri dituzte Beterri-Buruntzako udalek urtea amaitzerako. Lanpostu hauetan aritzeko lehentasuna izango dute lan merkatura sartzeko zailtasun gehien duten kolektiboak: “emakumeek, 55 urtetik gorakoek eta DBE hartzaileek”. Urtea amaitzerako gauzatuko diren kontratazioak lanaldi osokoak izango dira eta bost hilabeteko iraupena izango dute. Udal bakoitzak beharren arabera zehaztuko du kontratazio kopurua.

Prestakuntza saioak Usurbilen

Zereginotan hasi aurretik, prestakuntzarako egitasmoa ere landu dute Beterri-Buruntzako udalek eta EAGI-k, Eraikuntza Eskolak. 150 orduko iraupena izango duen ikastaro hau Usurbilgo prestakuntza zentroan egingo da, urriaren 28tik aben-



Udal bakoitzak beharren arabera zehaztuko du kontratazio kopurua.

duaren 11ra. “Hiri espazioen mantenua eta udal brigaden baitan lan anitzetako operario bezala lan egiteko oinarritzko abileziak eta ezagutzak barneratzea du helburu. 4 arlo landuko dira ikastaro horretan: bide publikoen mantenua, saneamendu sareen mantenua, oinezkoentzako bideak eta espazio publikoen mantenua eta hiri altzarien mantenua”, Beterri-Buruntzako udalek berri eman dutenez. 15 lagunentzako lekua egongo da ikastaro honetan. “Ikastaro honetan parte

hartuko dutenen eta ondoren kontratatuko direnen artean erdiak emakumezkoak izatea lortu nahi da”, ohartarazi dute Beterri-Buruntzako udalek.

Ikastaroa 15 lagunek egin ahalko dute, eta aipatu moduan, urtea amaitzerako “lehen 12 pertsona kontratatuko dira”. Lan deialdia lanbide. eus atarian argitaratu dute eta atari horretan bertan bideratu ahalko dute interesdunek izen ematea.

■ Informazio gehiago:
usurbil.eus / 943 371 951

Aginagako Arrate tabernaren esleipena

Usurbilgo Udalak urtebeteko tartean esleipen prozesu hau abiatzen duen bigarren aldia da. Iazko uztailean egin zen lehenengoa, ez zen inor aurkeztu eta taberna esleitu gabe geratu zen. “Zerbitzu hori eman zedin lanean jarraitu zuen udal gobernuak: gerora, zerbitzu hori emateko prest agertu zenik izan zen, eta kontratu txiki bat egin zitzaion. Orain, bigarren esleipenean, hamabost eguneko epea irekiko da”, iragarri du Udalak.

Deialdia

■ Proiektuen aurkezpena: urriaren 23ra arte, udal erregistroan edo postaz Udalera helarazita (Usurbilgo Udala/ Joxe Martin Sagardia plaza z/g / 20170 Usurbil).

■ Kontratuaren iraupena: urte-

betekoa, urtez urte berritzeko aukera gehienez 4 urtera arte.

■ Kanona: gutxienez hileko 25 eurokoa (+ %21eko BEZa, 5,25 euro: guztira 30,25 euro). Esleitzailerek kopurua igo dezakete eskaintzetan, baina kontratuak iraun artean ez da kanona berrikusiko.

■ Esleipendunak bete beharreko baldintzak:

-Hizkuntza gaitasuna bermatua izatea (B2 maila egiaztatzea).

-Elikagaien manipulatzailer titulu izatea.

-Zerbitzua herritar guztiei zabaltzea.

-Erabiltzaile gehienak erretiratu eta pentsiodunak direnez, haiei Udalak onarturiko prezioak aplikatzea.

-Instalazioen eta ekipamenduen mantenua bermatzeko egin be-

harreko gastuak esleipendunaren gain geratuko dira, “legez jabearen ardurakoak direnak izan ezik (zehaztapenak plegu administratiboetan jasota datoz)”. Udalak taberna erabat hornitua utziko du.

■ Eman beharreko zerbitzuak: tabernaren kudeaketa, “taberna-jantokiaren mantenua, ustiapena eta garbiketa; komunen garbiketa (nahiz eta erabilera publikokoak izan); eta, tabernatik beheko irteerara doazen eskaileren eta beheko sarreraren garbiketa. Halaber, esleipendunaren betebeharra izango da zahar egoitzako gelen ate zaintza-lanak egitea”.

■ Informazio gehiago:
usurbil.eus
943 371 951.

■ Deitzailea: Usurbilgo Udala.

Langabezia beherantz

210 langabetu zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak irailean Usurbilen, abuztuan baino 19 lagun gutxiago. 13 langabetu gutxiago zenbatu dira emakumezko langabetuen kolektiboan, 131tik 118ra murriztu da. 6 langabetu gutxiago gizonetakoetan, 98tik 92ra jaitsi osten. Beherantz baita langabetu kopurua Buruntzaldean (3.004tik 2.902ra) eta Gipuzkoan (30.082tik 29.714ra). Kontratazioak gorantz egin du irailean Usurbilen. Abuztuan baino 113 kontratu gehiago erregistratu dira, guztira 432. Ia denak, 396, aldi baterako eta 342 zerbitzuen sektorean.

Emakume kontratatu gehiago

Bada datu berri bat oraingoan; oraingoan, emakumezkoen kontratazio kopurua gizonetakoaren gailendu zaio; erregistraturiko 233 kontratu emakumezkoenak izan ziren joan den hilabetearen, 199 gizonetakoak.

KPI-aren igoera, zerga-ordenantzetan

Iazkoaren ildotik, KPI-aren igoera aplikatu asmo du udal gobernu taldeak 2020ko zerga-ordenantzetan. Udalberri bidez iragarri duenez, %1eko igoera aplikatuko dute kasu gehienetan, salbuespenak izango diren arren, “zenbait zerga eta prezio publiko ez baitira igoko”. Udal gobernu-taldea, ordenantza fiskalen gaia ostegunerako (urriak 17) 18:00etan deitzekoa duen udalbatzaren ezohiko osoko bilkurara eramatekoa da. Urte berrirako aurrekontuak lantzen joan asmo dute asteotan bestalde, oposizioko taldeekin eta herritarrekin.

“Larrialdi demokratiko batean gaude”

2017ko urriaren 1ean Kataluniako herriari bere etorkizunaz erabakitzeak hitza hartzea ahalbideratzeagatik Espainiako Auzitegi Gorenak 100 urteko espetxealdiarekin zigortu zituen aste hasieran 12 buruzagi independentista. Epaia txistu artean hartu zuten usurbildarrek. Gure Eskuk deitutako urgentziatzko elkarretaratze zaratsua egin zen astelehenean bertan Mikel Laboa plazan. Euskal Herriko ehunka herrietan bezala, epaia salatu eta Kataluniari besarkada estua bidali zioten; “seguim amb vosaltres” mezua helaraziz. Espainiako estatuak hilabete luzez aurreikusitakoa berretsi zuela zioen erabakitzeko eskubidearen aldeko mugimenduak; “larrialdi demokratiko batean gaude”.

Halere, epai honen aurrean, aurrerantz egiteko deia egin zuen Gure Eskuk, “beti, Kataluniarekin”. Erreferendumaren aldeko herri ekimena lantzen



Gure Eskuk deitutako urgentziatzko elkarretaratze zaratsua egin zen astelehenean bertan Mikel Laboa plazan.

GURE ESKU DAGO

“Bidea irekiko diogu erabakitzeako eskubideari, gure estatus politikoa libre eta demokratikoki erabakitzeari”

ari direla iragarri zuten. “Ez izan zalantzarik, bidea irekiko diogu erabakitzeako eskubideari, gure estatus politikoa libre eta demokratikoki erabakitzeari”, Gure Eskuren esanetan.

Larunbat honetan, manifestazioa Donostian

Erreferenduma ez dela delitua aldarrikatu eta auzi honetako presoen askatasunaren, oinarritzko eskubideen eta herrien eskubide kolektiboen aldeko mobilizazio nazionala deitu du Gure Eskuk larunbaterako (urriak 19) Donostian. “Erreferenduma ez da delitua. Defenda dezagun gure erabakitzeako eskubidea” deitu du Gure Eskuk.

EAJ: “Konponbidea elkarriketatik etorriko da”

Usurbilgo udal talde jeltzalearen ustez, Kataluniako prozes delakoaren epaia benetan larria da, “ebazpen eta auto judizialen gaineratik ere auzi politiko horrek bere horretan jarraituko du eta zigor esparrura eramanda, are indar handiagorekin”.

Josune Urkola EAJko udal bozeramaileak gogora ekarri nahi du “bere garaian jeltzaleok salatu genuen bezain irmo salatzen dugula gaur Kataluniako gizartearen ordezkari legitimoak bi urte luzetan presoaldi prebentiboarekin zigortu izana. Salbuespeneko zigorra izan zen eta oraingo epaiarekin are larriago bilakatu da, gatazkari amaiera eman beharrean bere gorenera eraman du eta Espainiako Estatuaren barruan elkar-



EAJko zinegotziek Gure Esku Dagok Donostian deitutako elkarretaratzean parte hartu zuten astelehenean.

bizitza demokratikoa hautsi dezake. Katalunian auzi politiko bat dago eta auzi politiko honek behar duen irtenbidea ez da etorriko epaiketarik edo ebazpenetatik, ezta 155. artikulua aplikatzen ere, elkarriketatik baizik”. Espetxean jarraitzen duten ordezkariak askatzea erreklamatzeko dute, “gertakariak esparru politikora muga-

tzen direla ulertzen baitugu”.

“Erabakitzeako eskubidea dute”

Josune Urkolaren iritziz, “Kataluniako biztanleriaren gehiengoaren borondateari asebetetzeko erantzuna emango dion negoziaketatik” iritsiko da konponbidea. “Hiritargo honek, guk bezala, bere etorkizuna erabakitzeako eskubidea dauka”.

1.500 eskaera, Xua gurasoekin etxeratzearen alde

Usurbildik 600 kilometroa, Valentziako Picassenteko espetxean jarraitzen dute Xuak eta bere guraso Olatz Lasagabasterrek eta Patxi Urangak. Gurasoek, haurrekin batera etxean behar zuten jada, espetxe zigorraren hiru laurdenak beteak baitituzte. Bestelakoa da ordea egoera. Xuak urtarrean hiru urte betetzean espetxetik irten beharko du, eta honenbestez gurasoengandik bereiziko dute. Hiruak, haurra eta gurasoak etxera ekartzearen alde ari da lanean “Xua Gurasoekin Etxera”, Usurbil, Orio eta Zarauzko lagunek osatu duten herri ekimena.

Besteak beste, sinadurara bilketa bat abiarazia du change.org atarian. 1.500 lagunek bat egin dute jada Xua gurasoekin etxeratzea ekartzearen aldeko manifestuarekin. Manifestua babesteko arrazoi anitz aipatu dituzte hainbat sinatzaileek aipatu web orrialdean idatzi dituzten iruzkinetan; “etxean egon behar dutelako”, injustiziatzat jo edota eskubide urraketa dela ohartarazten baitute. “Beraien eskubideak dira, bai Xuarena gurasoekin bizitzeko, bai gurasoena hiru laurdenak bete dituztelako”, dio sinatzaile batek. Beste baten esanetan, “irakasle naizen ikuspuntutik, ezinbestekoa da. Ume batek bere gurasoen beharra du, hain oinarritzkoak diren lehenengo urteetan”.

Azken ostirala

Astebete barru, urriaren 25ean, Usurbilen Nahi Ditu gu bilguneak deituta, Xua, Olatz, Patxi eta gainerako presoen eskubideen aldeko hileroko azken ostiraletako elkarretaratzea 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Hamar urte betetzear den Mintzalagun, bidelagun eta bidelari berrien bila

Badira egitasmo hone-tan parte hartzen hasi eta gero, euskaltegian matrikulatu eta euskararen maila hobetu dutenak. Alderantzizko bidea egin dutenak baita; euskaltegian euskalduntzeko urratsak eman eta mintzapraktika proiektuan murgildu direnak badira. Beste txoko batetik Usurbila bizitzera etorri eta harreman sare berri bat izateko aukera izan dutenak baita. Eta mintzalagunetik lagun talde izatera igaro direnak.

Euskara ahotan hartu eta hizkuntza berean mintzatzea sustatzea xede duen Etumeta AEK euskaltegiak, Usurbilgo Udalak eta NOAUA! K.E.-k sustaturiko egitasmoa bide ezberdinetatik heldu ohi dira parte hartzaileak, eta behin mintzapraktika saioetan hasita nork bere bidea jorratzen segitzen du gero.

Mintzapraktika saioek astean ordubeteko konpromisoa baino ez dute eskatzen; astean ordubete, bidelari (euskara



Mintzapraktika egitasmoa aurkezteko euskaltegian egin zuten bilera.

MINTZALAGUN

“Parte hartzea doakoa da eta horren truke, hamaika abantailez goza daiteke”

ikasten ari direnak) eta bidelagunak (euskara dakitenak) bildu eta taldeak erabakitako leku eta orduan, planak egin eta garrantzitsuena, euskaraz aritzea. Giro atseginan, lagun artean. Mintza taldeoz gain, badira familientzako mintza taldeak, Mintzodromoak, bi-deokonferentzia bidez euskaraz aritzeko aukera eskaintzen

duen mintzanet.eus ataria... Egitasmoaren leloak dioen moduan, “11 aukera euskaraz praktikatu eta bizitzeko”.

Mintzalagunek euskalduntze bidean direnen nahiz euskaraz bizitzeko aukera gehiagoren bila dabilzanen beharra du. Parte hartzeko gutxieneko euskara-maila eskatzen da. Parte hartzea doakoa da eta horren truke gainera, hamaika abantailez goza daiteke; emanaldiatarako txartel, opari eta deskontu ezberdinez.

Asteroko bilkurez gain, mintzalagun guztien nahiz

gainerako herritarren topagune bilakatzen diren herri mailako ekintzak antolatu ohi dituzte; azken urteotan Zumeta Arte Estudiora edota Txokoaldeko Txalaparta Txokora egin dituzten irteerak esaterako.

Mintzapraktika egitasmoak eskaintzen dituen aukeren gaineko xehetasunak eskaini zituzten sustatzaileek, urriaren 11n euskaltegiko egoitzan egin zuten aurkezpen bileran. Antolatzaileez gain, mintzapraktikan aritzen diren zenbait bidelagun bildu zituen hitzorduak.

10. urtemugaren atarian

Urtemuga berezi baten atarian da Usurbilgo Mintzalagun. 2020an 10 urte beteko ditu eta datorren udaberrian urtemuga festatxo bat egin asmo dute. Bitartean, mintzapraktika egitasmoetan izena eman eta argibide gehiago jasotzeko bideok dituzue:

607 609 379 / 943 360 321

mintzalagun.blogspot.com

usurbil@ae.k.eus

Facebook:Mintzalagunak Gara

Euskaraldirako laguntzaileak behar dira

2020ko bigarren edizioa pres-tatzeko bolondresak behar ditu Usurbilgo Euskaraldiak. Lau lan talde osatu dira: denetari-ko entitateekin lan egiteko, ekintzak antolatzeko, edota koordinazio eta komunikazio lanak bide-

ratzeko. Lan taldeetan izena emateko usurbil@euskaraldia.eus helbidera idatzi edo esteka honetako galdetegia osatzea eskatzen da:

<https://forms.gle/urLU7xxi26Jdc6RX7> edo

Aurkezpena Kulturaldian

Euskaraldiraren estreinako edizioak Usurbilen izandako eraginaren gaineko azterlana osatu du Soziolinguistika Klusterrak Usurbilgo Udalak eskatuta. Azaroaren 6an 18:00etan

Potxoenean aurkeztuko dira emaitzak. NOAUA!ren Kulturaldiko lehen hitzordua izango da. Azaroaren 6tik 17ra, ohi den moduan, denetari-ko kultur ekitaldiak izango ditugu. Egitarau zehatza datorren astekarian.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL



Liburutegiaren Eguna astean bilakatu du Sutegik

Liburuak apirilaren 23an bere nazioarteko egun handia ospatzen duen antzera, liburutegiak ere badu egutegian nabarmendutako tarte propioa; urriaren 23a. Nazioarte mailako oroimen egun horren bueltan, ohikotasunez eskaintzen duen zerbitzutik haratago, ahal duenero herri bizitzan ekarpena egin eta liburutegia plazaratzeko prest izaten duten Sutegiko lagunek ekimen sorta iragarri dute hurrengo asterako. “Aitzakia bat da guretzat, beti nahi izan dugu liburutegia presente egon dadila Usurbilen”, Bakartxo Iguaran liburutegiko laguntzaileak NOAUA!ri adierazi dionez.

Liburutegiaren Egunaren aitzakian, “urtero ospatu eta beti egiten dugu zer bait”, gogorazi digu. Baina jarduera eremua zabaltzen joan dira denborarekin, eta horrek antolatutako izan dituzten ekimenetan isla argia izan dute. Bakartxo Iguaranen esanetan, “lehen animazio ekitaldietan, irakurzaletasuna sustatu eta liburutegia ezagutzea xede zuten ekimenetan, ohikoa izaten zen haurrentzako ipuin kontaketa antolatzea, eta solasaldiren bat helduentzat. Eremu horretara mugatzen ginen beti”.

Beharrezko ikusi zuten, baitetik liburutegian duten funts aberatsa ezagutzera eman eta



Urriaren 23a izango da liburutegien egun handia.

BAKARTXO IGUARAN

J. K. Igerabide “Abezedario titirijario” lanarekin dator Sutegira. Abezedarioa jolas bihurtuta, “saio ludiko bat eskainiko du, tailer modukoa”

liburutegia bera herriko plaza publikoan presente edo ikusgarri egiteko, ordura arte jorratu zuten “eremua pixka bat zabaltzea”.

Eta hala, berrikuntzak xertatzen joan dira. Liburutegiko espazioan, antza belaunaldi gazteenean zaletu mordoa dituen origami tailerrari lekua egin zioten urte hasieran. Saio bakarria behar zuenak, azkenean hiru egin zituzten. Gai horri lotutako liburuak erabiltzeko baliatu zuten hitzordua.

Olaso eta Igerabide

Ildo horretan, eremu zabaltze horretan kokatu nahi dute liburutegikoek, datorrenenerako prestatu duten ekimen astea; txikientzat eta gazte zein helduentzat bina saio. Gazte txoenak punta-puntako bi euskal idazle ezagunek bideratuko dituzte; Xabier Olasok eta Juan Kruz Igerabidek. Euskadi Saridun Olasok bere liburuarekin hitzekin jolasten jarriko ditu ikus-entzule gaztetxoak. “Kantatzen, dantzatzen eta jolasten amaituko omen dugu”, Iguaranek iragarri duenez. Saio gomendagarria iruditzen zaio baita guraso edota hezitzaileentzat.

Igerabide, urte honetan bertan haur literaturako sari nazionala irabazi duen “Abezedario titirijario” lanarekin dator Sutegira, emanaldian bilakaturik.

Abezedarioa jolas bihurtuta, “saio ludiko bat eskainiko du, tailer modukoa”.

Herritarrek ardatz

Ahal duenero etxekoekin elkarlanean aritzen dira Sutegi udal liburutegikoak. Nabariko da datorren asteko hitzorduetan ere. Lau ekitaldietako bi, herritarren eskutik gauzatuko dira. Batean, Ugaitz Agirrerren estreinako eleberria, “Tximeletak bizkarrean” hartuta, beste herritar batek, Yolanda Arrieta idazleak gidatuko duen euskarazko irakurketa topaketa ospatuko dute. Hamalagarren edizioa heldu dira solasaldiok. “Oso giro ona egoten da. Oso aberasgarria izaten da idazlea bera topaketan bertan egotea. Denok dugu kuriositate handia sortze prozesuari buruz. Saio oso aberatsak izaten dira”, Iguaranen esanetan.

Ekimen astea, Idoia Torregarai umoregilearen bisitak boro-bilduko du. “Espresuki umore pieza bat prestatu du liburutegiarentzat”, iragarri digute Sutegitik. Aurrerapentxo bat egin digu Bakartxok. “Idoia liburutegiko erabiltzaile eta defendatzaile sutsua da. Oso irakurzailea da. Askotan txantxetan nere kabezerako liburuzainak deitzen gaitu. Hortik abiatuta pieza bat egingo du. Interaktiboa izango da, gu ere parte hartzen jarriko gaitu”, dio Iguaranek.

Liburutegiaren Asteko hitzorduak

Urriak 22, asteartea

■ 18:30 “Tximeletak airera” ordubeteko emanaldia: “Xabier Olasoren eskutik, hitzekin jolasean ibiliko gara. 3 urtetik gorako neska-mutilei eta gaierikiko interesa izan dezakeen edonori zuzendutako saioa. 3-5 urteko haurrek heldu batekin egon beharko dute”.

Urriak 23, asteazkena

■ 19:00 14. Euskarazko Irakur-

keta Topaketa: “Ugaitz Agirre herritarren Tximeletak bizkarrean eleberria izango dugu mintzagai Liburutegian eta idazlea bera gure artean egongo da; zeregin horretan, bide-lagun Yolanda Arrieta Malaxetxebarria herritarra eta idazlea izango dugu. Liburuak jada eskuragarri daude Liburutegian”.

Urriak 24, osteguna

■ 18:30 “Abezedario titirijario”

emanaldia: “Juan Kruz Igerabideren eskutik, letrekin jolasean ibiliko gara Liburutegian. 6 urtetik gorako neska-mutilei, eta gaierikiko interesa izan dezakeen edonori zuzendutako saioa izango da. Iraupena: ordu bete inguru”.

Urriak 25, ostirala

■ 18:30 “Jar ezazu Liburuzain bat zure bizitzan”: Idoia Torregarai usurbildar umoregileak

“espresuki Sutegi Liburutegirako prestatutako umore-pieza bat eskainiko digu; saioa interaktiboa izango da, eta Liburutegiko erabiltzaile izan edo ez, gazte(txo) zein heldu... dibertimendua ziurtatuta dago! Eta lasai, emanaldiak 45 minutu iraungo ditu, beraz, ostiral iluntzeko poteorako libre izango zarete”.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Andres Bruño Urdanpilleta, Gernikako bonbardaketaren lekuko zuzena

Bizitza ez da guk nahi dugun bezalakoa, tokatzen zaigun bezalakoa da esaldia sarritan hartzen omen zuen ahotan, urriaren 5ean zendu zen frankismo ostean, demokratikoki hautatutako Usurbilgo lehen alkate Andres Bruño Urdanpilletak. Bizitza egokitu zitzaionari keinua egingo zion ziur hitzok ahoskatzean.

NOAUA! bidez aurreko astekarian gogorarazi genizuen moduan, apirila hasieran Gernikako batzarretxean omendu zituzten Bruño eta frankismo osteko lehen alkateak, lehen hauteskunde demokratikoak ospatu zireneko 40. urtemuga bete zenean. Lagun eta senideez inguratua izan zen, Usurbilgo udal ordezkari batekin batera. “Oso gustura joan zen eta han oso hunkitua zegoen. Errekonozimendu handia izan zen berarentzat”, adierazi diote NOAUA!ri Andresen senideek.

Une horretako alkate Xabier Arregiri eskerrak helarazi nahi dizkiote. Berak animatu zuen Andres Gernikako omenaldira. Eta batzarretxeko ekitaldiaren ostean, Arregik berak gogorazi zuen sare sozialen bidez, Bruño Gernikarekin izan zuen lotura estua, lerrootan azalduko duguna. Omendua izan zen



Frankismoaren ondorengo lehen alkatea izan zen Andres Bruño.

DONOSTIAN SORTUA

“Umetan, Donostiako Alde Zaharreko Pescaderia kalean bizi zen, Bretxako azokan arraina saltzen lan egiten zuen ama errepublikazalearekin”

herri horretan bertan, 1936ko gerran sufrututako bonbardaketaren lekuko zuzena izan baitzen Andres.

Lau urteko bidaia latza

Andresen alaba Maribelek, Blancak eta biloba Maitane Eizagirrek egin digute Bruñok gerra garaian bizi eta sufritu behar izan zuenaren kronika. 1926ko martxoaren 18an jaio zen Bruño Donostian. “Alde Zaharreko Pescaderia kalean” bizi zen, Bretxako

azokan arraina saltzen lan egiten zuen ama errepublika zalearekin (gurasoak bananduak zituen) eta arreba Ana Marirekin. Egunerokotasuna erabat hautsi zitzairen 1936ko gerrarekin, Donostiatik joan beharrean aurkitu ziren. Eta halakorik gertatzea espero ez zuten arren, oharkabean familia bereiziko zuen lau urteko bidaia luzeari ekin zioten.

Gerra aurretik, Andresek eta bere familiak ezagunak zituen Aginagako Otamenditarrek, “Donostiara esnea edo barazkiak saltzera joaten ziren”, kontatu digu Maribelek. Harreman horretatik sortu zen, Andresen 8 urteko arreba Ana Mari, 1936ko udan, hasiera batean egun batzuetarako Aginagako Otamenditarren etxera joateko gonbita. Donostiatik

irten beharrean aurkitu zirenean, Ana Mari Aginagan geratu zen. Andresek eta bere amak Getaria aldera jo zuten, Maribelen esanetan, “han amonak lehengusu bat zuelako”. Astebeteko tartean etxera itzultzea espero zuten, baina horretarako azkenean 4 urte igaro behar izan zuten. 1936ko uztailako altxamendua gertatu eta tropa frankistak hurbiltzen joan ahala, Gipuzkoatik askok Bizkaia alderako bidea hartu zuten; tartean, Andres, ama, amaren anaia, emazte eta haurrekin eta bidera batu zitzairen Getariako emakume bat. Denak antza, Andresen osabak zuen ibilgailuan. “Markina aldean Getariako emakumea mareatu” eta bidaiaren norabidea zeharo aldatuko zien gonbita jaso zuten.

Gernika-Lumoko emakume batena. “Nora zoazte?” galdetu zuen. “Egia esan ez dakigu, aurrera”, erantzun Andresek eta senideek. “Gure baserrian lekua egongo da, etorri, bertan hartuko zaituztegu”, esan omen zien gernikarrak. “Aitari malkoak ateratzen zitzaizkion pasarte hura kontatzean. Inondik ezagutu gabe, eskuzabaltasun horrekin etxean hartu zituzten ez lagun bat, bost baizik”.

Gernikan metrailatua

Uda amaierarako Gernika-Lumon ziren, eta han izan ziren 1937ko udaberrira arte. Urte hartako apirilaren 26a Gernikak, Euskal Herriak eta munduak ahaztu ez duen bonbardaketa pairatu zuen. Une haren lekuko zuzena izan zen Andres eta bere fa-

milia. “Arratsaldeko 15:00ak aldera izan zela kontatzen zigun. Ganaduekin zebiltzala, bonbarderoak eta kazak agertu ziren. Kazak oso baxu metrailatu zieten. Pentsa, kazako pilotuen aurpegiak ere ikusi ahal izan omen zituzten. Hori oso gogoan zuen. Alpapa

gainean lurrean botata, nola ikusten zuen. Ama eta izeba zuhaitz baten azpian. Herriko apaiza ezkutatzeke erregutzen”, dio Maribelek. Maitanek aipatu digunez, “hil itxura egin zuen”. Eta horren ostean joan omen ziren. Bertan zirenak salbu irten ziren une latz

hartatik.

Baserria antza Gernika-Lumo goialdean omen zen. Goialde hartatik, “bonba-jaurtitzaileak depositua betetzera nola joaten ziren eta berriez nola etorri eta bonbardatzen zuten” ikusi eta bizi behar izan zuten.

“Aginagan aurkitu zuen etxea, familia eta babesa”

Gerra batetik ihesi heldu ziren Pariseraino eta handik berriz ere atera beharrean aurkitu ziren 1940an, “tropa alemaniarrek sartu zirenean. Orduan, Donibane Lohitzunera jaitsi ziren, Donostiako portuko senideak bertan bizi baitziren”.

Lau urteko bidaia hartan, kontakizun honetatik at geratu da Andresen arreba Ana Mari, baina gerora Andresek Aginagarekin izandako loturan giltzarria izan zen. “Bitartean Andresen arreba hiruzpalau urte Aginagan, ezer jakin gabe. Senideak gehiago ez zirela etorriko pentsatzen”, oroitzen du Maitanek. “Aitak sarritan esaten zuen, gure arrebak gutaz ezer jakin gabe, zer pentsatuko ote zuen?”, dio Maribelek.

Donibane Lohitzunetik etxera itzultzea erabaki zuten, baina ez zorigaiztoko gertaerarik bizi gabe. “Muga pasa eta segituan osaba Juanito atxilotu zuten. Katalunia aldeko frontean ibilia zen gerra garaian, aita eta amona Parisen ziren artean. Mugan atxilotu eta Miranda de Ebroko kontzentrazio esparru-



Irudiko Gernikako etxetik Bilbora, Bilbotik itsasontzian Bordelera, gero errefuxiatuen eremu batera eta handik Pariserara joan behar izan zuten.

36KO GERRAN

“Andres eta ama Frantzian zirela, Andresen aita 1937an afusilatu egin zuten erreketeeek Irunen”

ra eraman zuten, 3 urtez izan zuten preso bertan”. Lehenago, Andres eta ama Frantzian zirela, Andresen aita 1937an afusilatu omen zuten erreketeeek Irungo fronte errepublikarrean.

“Ni ez naiz bueltatu nire etxera”
Lau urteko bidaia luze eta la-

tzaren ostean “amona eta aita izeba Ana Mariren bila etorri ziren Aginagara. Hor geratu ziren”. Ezin izan zuten Donostiako etxera itzuli. “Etxe hartan salbatu zen bakarra, bere aitonaren koadro bat izan zen”. Horregatik Andresek sarritan esaten omen zuen gerora, “ni ez naiz bueltatu nire etxera”. Halere, esker onez oroitu zituen beti Andresek, bai Gernikako baserri hartako sendia, bai Aginagako Otamenditarrak. “Aginagan aurkitu zuen azkenean etxea, familia eta babes lekua”, adierazi digute

bere senideek.

Iragana ahaztu gabe; Gernikarekin lotura estua izan zuen beti. Familiari transmititu zion; urte luzez izan dute Gernikara joateko ohitura. Familiak Andres eta bere emaztearen 50. urtemugako urrezko ezteiak ospatu zituztenean, sakon hunkitu zuen oparia jaso zuten omenduek; haien bizitza, tartean Andresek hil arte barruan zeramatzan Gernikako oroitzapenak biltzen zituen liburua. Familia osoak ditu liburu honen aleak, haien memoria historikoa bizirik mantendu dadin.

Andres Bruñoren omenez

Bilobek hileta elizkizunean irakurritako idatzia

Makina bat aldiz esan diguzu aitatxo-aitatxi, 10 urterekin Donostiatik, zure etxetik, atera eta ez zarela inoiz itzuli. Izan ere, bide luzea egitea egokitu zitzaizun: Donostiatik Gernika-Lumora, handik Pariserara eta itzulerara Aginagara egin zenuen; eta hementxe aurkitu zenuen zure etxea, familia, babes-lekua.

Maitasuna izan duzu lelotzat, laguntasuna oinarritzat. Zinez, mila esker zugandik

jaso dugun guztiagatik! Eta ze harro daramagun zure abize-na, Xabier Leteren hitzak gogora ekarriz:

“Teilatuan elurra, herrian ekaitza bihotzean azken agurraren beldurra... Udazkeneko lehen hotza, azken loraldi ezina, bizitzaren garrasia heriotz egina”.

Eta aitatxo-aitatxi, gure bihotzean, oroimenean eta irribarrean zaude eta egongo zara, hementxe, gurekin, beti-betiko! Mila esker zuei denoi, adierazi diguzuen babesagatik.

Andresen omenez hileta elizkizunean abestutako bertsoak

Nola ote dan beti galdezka egiten dugu ahalegina, hobe genuke zentzutasunez denok ariko bagina.

Maite zenuan lana maite zenun herria, zure benetako grina ea noiz baten ikusten degun zuk nahi zenduan Agiña.

Agiñatarrok izan zaitugu gu guztion laguntzaile, Andres guretzat izan zerade benetako bakegile.

Zure bihotz onari jarri guztiok adi, ez gatoz gu salatzaile guztion jauna izan dedila zeru lurren salbatzaile.

Agiñan 2019ko urriak 7
Antton Pikabea Sarasola

“Behin iritsita esan zidaten lasai ibiltzeko, bigarrena 25 kilometro atzerago zegoela eta”

Joan zen asteburuan jakatu zen distantzia luzeko Infinitriman txapelketa irabazi zuen Mikel Otaegi usurbildarrak. Hiru egunetan 515 kilometroko ibilbidea burutu eta lehen postuan zeharkatu zuen helmuga. 10 kilometro igerian, 421 bizikletan eta 84 korrika egin zituen. Distantzia luzeetan aritu da azken urteetan eta ironman pare bat ere egin ditu jada. Berarekin izan da NOAUA! garaipenaren xehetasunak gertuagotik eza-gutzeko.

NOAUA! Castellonen ospatu den Infinitriman triatlói txapelketa irabazi zenuen aurreko asteburuan. Espero zenuen garaipena eskuratzea?

Mikel Otaegi: Azken urteetan distantzia luzeetarako prestatzen aritu naiz, bai lasterketan, bai entrenamenduetan. Lasterketa honetarako izena eman nuen aurreko urtean ere, ilusioz egin nuen. Lehen aldia zen horrelako lasterketa luze batean parte hartzen nuena. Bi ironman eginda nituen, bat duela bi urte eta bestea joan zen urtean. Joan zen urtekoa bereziki gogorra egin zitzaidan hornidurarako posturik ez baitzuten jarri. Janaria eta edatekoa norbaitek eraman behar zigun autoz. Lagun bat animatu zen lan hori egitera. 13 orduan egin nuen, eta benetan gogorra iruditu zitzaidan. Hirugarren egitea lortu nuen orduan. Orduan konturatu nintzen distantzia luzeetan gai nintzela maila lehiakor batean aritzeko. Udan nire kontutik distantzia luzeak egiten aritu naiz. Santiagora joan eta etorri egin nuen 5 egunetan joan zen udan. Horrelakoak oso ariketa onak dira autoezagutza lan hori egiteko. Burua prestatu behar izaten da distantzia luzeetarako eta gorputza ezagutzea ere



Distantzia luzeko Infinitriman txapelketa irabazi berri du Mikel Otaegi usurbildarrak.

MIKEL OTAEGI

“Hornidurarako ama joan zen niri laguntzera, eta beste taldeko batzuek ere lagundu zidaten momenturen batean”

ezinbestekoa da. Errekuperaketa fase hori kontrolatzea ezinbestekoa da. Nire ezinegonik handiena Infinitriman-ean lehen egun hori gainditzea zen; ordu-ra arte sekula ez nituen 10 kilometro egun batean igerian egin. Eguraldia oso ona tokatu zen eta lehen egun hori bigarren postuan amaitu nuen, lehenengotik bi minutu eskasera. Bigarren egun horretan ez neukan neke sentsaziorik, eta horrek motibazio extra hori eman zidan. Bizikletan lehen postuan jartzea lortu nuen berehala. Hornidurarako ama joan zen niri laguntzera, eta beste taldeko batzuek ere lagundu zidaten momenturen batean. 160. kilometrorra arte ez nuen laguntzarik izan. Bi botilatxo eta jateko zerbait hartu nituen orduan, eta horrela egin nuen bidea metara

iritsi arte. Behin iritsita esan zidaten lasai ibiltzeko, bigarrena 25 kilometro atzerago zegoela eta. Alde handiarekin irabazi nuen, beraz. Nire helburu nagusia amaitzea zen, eta gainera lehenengo egitea izugarria da.

Txapelketa ugaritan hartu duzu parte, eta emaitza oso onak eskuratu dituzu. Zein da zure txapelketa gogoangarriena?

Asko daude. Joan zen urtean Xabi Izeta nire lagunarekin egin nuen txapelketa niretzat oso berezia izan zen. Hura nire laguntzaile izan zen. Ironman distantzia egin nuen orduan. Lasterketa goizean goiz, ilunpetan hasi genuen hondartza batean. Hasiera hori antortxen argitan prestatu zuten, eta oso polita eta berezia izan zen. Peñiskolan izan zen. Hondartza batetik bestera 4 kilometro igeri egin, eta bizikletan 180 aritu ginen. Malda handiko kilometroak izan ziren haiek. Laguntzaileak lasterketan oso sartuta egon behar du, hornidurara emateko prest egon behar du denbora guztian eta hori guztia lagun batekin egin ahal izatea

oso ederra da. Oso oroitzapen gozoak dauzkatz orduak. Metan batera sartzea behar beharrezkoa zen txapelketa amaitu ahal izateko eta gaueko 8etan ilunpean, buruan argia jarrita eta menditik galduta ibili ondoren, hirugarren postuan sailkatzea laguna ondoan duzula izugarria da. Gorputzaren mugak gehien sentitu ditudan aldia izan zen hura.

Horrenbesteko erronkak gainditzeko asko entrenatuko duzu, ezta?

Denbora daukadanean. Urtean zehar lanarekin eta hemengo eguraldia ikusita ez da erraza asko entrenatzea. Gehien bat asteburuetan egin behar izaten dut. Egunero entrenatzen dut, baina distantzia txikitzen. Askotan ez dut entrenamendu gisara hartzen, lanetik deskonektatzeko modu bat da. Triatlóiak daukan alde ona horixe da: diziplina aukeratzeko aukera. Gogoaren arabera, igeri, bizikletan edo korrika egin dezakezu eta egutegi aldetik ez digu inork inposatzen inolako zehaztasunik.

“Larunbatean ironman bat daukat Gandian, gero atsedena hartuko dut”

NOAUA! Noiz sortu zitzaizun triatloi eta duatloietan parte hartzeko grina?

Mikel Otaegi: Kasualitatez izan zen 2008an. Baxurde Txiki taldekoak triatloietan ibiltzen ziren eta Iñaki Añorgak behin esan zidan duatloi batean parte hartzeko asmoa zutela eta bosten artean izena eman genuen. Taldea sortu genuen horrela eta 12 bat elkartu ginen azkenean. Euskal Herriko duatloi zirkuituetan hasi ginen. Lehena Durangon egin genuen. Orduan 22 urte nituen eta 23 urtez azpiko kategorian hartu nuen parte. Lehen txapelketa hura, sorpresa handiz, irabazi egin nuen. Ikusi nuen ez zitzaidala batere gaizki ematen, eta horrela animatu egin nintzen. Bigarren lasterketa ere irabazi egin nuen. Ordutik aurrera, lehen 4 urteak Baxurde Txikirekin egin nituen eta oso maila ona eman nuen. Maila nagusira pasatzean ere irabazi egin nuen lehen lasterketa. 2011n lesio batzuk izan nituen eta unibertsitatean nenbilen eta urte nahiko kas-karra izan zen. Nafarroako talde batek deitu ninduen gero, aurrekontu handiagoa zuten eta Espainia mailan aritzen ziren, helburu handiagoekin. Taldekako txapelketa batzuk irabazi genituen eta elite mailan bakarrik ere aritu nintzen gehienetan lehen hamar postuetan amaituta. Urte gutxitan ardura gehiegi nituela konturatu nintzen, entrenatzeko eta txapelketetan aritzeko denbora asko behar nuen eta lanean ere ardura dezente ditut. Aldentzea erabaki nuen orduan. Independent modura hasi nintzen orduan. Palentziako talde hasiberri baten babesla lortu nuen, eta babesle independenteak ere bai. Gozatzeko mentalitatea ere hartu nituen hurrengo bi urteak. Haiek oso urruti zeu-



“Gabonak aldera maila jaitxi egiten dut pixka bat. Ordu aldaketarekin eta eguraldi txarrarekin ez dut horrenbesteko gogorik izaten entrenatzeko”

MIKEL OTAEGI

“Hori du kirol honek polita, lasterketetan elkarri laguntzeko prest gaudela beti nahiz eta ‘arerioak’ izan. Lagun asko egin ditut”

dela ikusita, gure arteko harremana nahiko hotza zen. Ez nintzen haien parte sentitzen, eta bakarrik jarraitzea erabaki nuen. Santanderreko talde batek deitu ninduen gero eta haiekin nabil orain. Hemen-dik aurrera ez dakit. Ez daukat inolako presiorik. Distantzia luzeak egiten jarraituko dut, eta parte hartzaileekin harreman-tzen jarraituko dut. Hori du kirol honek polita, lasterketetan elkarri laguntzeko prest gaudela beti nahiz eta “arerioak” izan. Lagun asko egin ditut.

Betidanik izan zara kirolaria?

Kirol oso fisikorik sekula egin gabe nintzen. Andoainen bizi nintzen, baina hemen ikasten nuen, orduan beti Andoainera itzuli behar izaten nuen lotara eta ez neukan erraztasun hori. Ping pong-ean aritzen nintzen,

baina hobby bat baino ez zen. Udarregiko denbora pasa izatek txapelketetan parte hartzera pasatu ginen eta nahiko emaitza onak lortu nituen: Gipuzkoako txapeldun. Kirolerako gogoia beti izan dut, ez zait inoiz gaizki eman. Nire guztia ematea gustatzen zait emaitza kontuan hartu gabe. Norbaitek irabazten banau zoriondu egiten dut, ez da ezer gertatzen.

Etorkizunerako zein erronka dituzu?

Larunbatean ironman proba bat daukat Gandian. Hori egin ostean deskantsatzeko aukera gehiago izango dut. Gabonak aldera maila jaitxi egiten dut pixka bat, ordu aldaketarekin eta eguraldi txarrarekin ez dut horrenbesteko gogorik izaten entrenatzeko, ez txapelketan parte hartzeko. Helburu finkorik gabe, motibazioa ere ez da horren handia. Otsailean hasten naiz berriz gogorrango. Donostiako maratoi erdia eta inguruko lasterketa batzuetan parte hartzen dut, baina modu lagunkoiagoan. Goizpasak egiten ditut, aspaldi ikusi gabeko lagunekin kontaktuan jarraitzeko.

Zubietako energia planaz, Potxoenean

Energiaren inguruko jardunaldiak antolatu ditu herri-tar talde batek asteotarako, hausnarketa eta eztabai-darako. Usurbilen energia eta elikadura subirautearen arloetan, edota hondakin zein mugikortasunaren eremuetan beste eredu bat eraikitzen lan egingo luketen lan taldeen sorrera bultzatu nahi dute. Ostiral honetan, Ispaster eta Zubietako energia esperientziak aurkezteko solasaldia antolatu dute. Gogoan izan, Zubieta etorkizunerako begirako energia iturri berrien lanketa betean da azken urteotan.

Urriak 18, ostirala

■ 19:00 Hitzaldia Potxoenean: “Toki-esperientziak energian: Zubieta eta Ispaster proiektuak. Energia Berri-iztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatibak”.

Azaroak 8, ostirala


■ 18:00 Hitzaldia Potxoenean. “Usurbilgo autohormikuntza azterketa”. Hizlaria: Jesus Calvillo.

■ Antolatzailea: herritar taldea.

Txokoaldeko parte hartze saioa, urriaren 23an

Auzoko bizitza hobetzeko Udalak eta auzoak urriaren 9rako iragarria izan baina bertan behera utzi zuten parte hartze prozesuko lehen saioa, urriaren 23an izango da, arratsaldeko 19:30ean Akerra Gazte-txean. Hiritik At! kooperatibak dinamizatuko duen prozesuan, auzotarren beharrak azaleratu eta horiei irtenbidea ematea da asmoa.





Aginagako jaiei buruzko argazki gehiago topatuko dituzue noaua.eus atarian.

Aginagako biztanleria, Maria Angeles Arrutiren zenbakietan

Hasi Intxaurreta ingurutik mendialdean gora, eta handik behera Kaxkoraino, zenbat etxe eta baserri dauden, zenbat emakumezko eta gizonezko bizileku bakoitzean, ze adin tartekoak diren, zenbat jaio eta hil diren... Aginagako biztanleriari lotutako datu bilduma osatu du Maria Angeles Arrutik. Eta ia dena buruz egin du, etxez etxe galdetzen ibili beharrik izan gabe. Eskuz, koaderno batean jasoak ditu datu guztiok.

“Erraz ikasten ditut zenbakiak eta beti gustuko izan dut idaztea. Hala ikasi genuen eta kalkulagailua erabiltzea baino gustukoago dut eskuz egitea”, adierazi dio NOAUA!ri Arrutik.

Hirugarren neurketa du honakoa, 2018ra arteko datuak eguneratu ditu. ETB-ren *Herri Txiki Infernu Handi* saiorko prestatu zuen. Eta oraingoan gainera azterketa berri bat egin du; Aginagako alargun kopurua ere kalkulatu du. Argi dio, Aginagari buruz osatu duen errolda ez da ofiziala, baina bai argi denez, zehaztasun maila handikoa.

Biztanleriaren herenak, 60 urte baino gehiago

NOAUA!n Aginagako kronika idazten zuen garaian bururatu zitzaion datu bilketa hau egin hasia, irakurleentzako interesgarria izan zitekeelakoan. “Majiña bat zirriborro egin nituen” orduko hartan.

Bi urtean behin egin ohi duen neurketa honen inguruko datuak interpretatzea eskatu diogu Arrutiri. Aurreko neurketatik, 445etik 471ra igo zen biztanle kopurua iaz. Igoeraren atzean eskola; “asko mugitu du, jende berria etorri da bizitzera”.

Eskolak etorkizuneko belau-



Maria Angeles Arruti, igaro berri diren Aginagako jaietako oilasko biltzaileak etxean bisitan izan zituenean atera zieten argazkian.

MARIA ANGELES ARRUTI

“Geroz eta heldu gehiago ditugu. Harrigarria da hain jende gutxi izateko zenbat heldu ditugun”

naldia bildu arren, joera orokorrekin bat eginez, Aginagako biztanleria ere zahartzen doa. 2018an ere heriotzek jaio-takoen kopurua hirukoiztu zuten. “Geroz eta heldu gehiago ditugu. Harrigarria da hain jende gutxi izateko zenbat heldu ditugun”, Arrutiren esanetan. Biztanleriaren %30ak, 144 aginagarrek 60 urtetik gora dituzte, 27 lagunek 80 urte baino gehiago, Arrutiren datuen arabera.

Etxebizitzak faltan

Bere azken neurketak biztanleria kopurua igo dela adierazi arren, beherakada nabaria izan da azken hamarkada hauetan. “Garai batean 800etik gora omen ginen”, etxe bakoitzean 5-10 seme-alabadun familiak bizi ziren garaietan. Belaunaldi hura hazi zenean, etxe nahikorik ez Aginagan eta gehienak kanpora joan ziren bizitzera.

“Hor egon zen etena. Etxe gehiago eraiki izan balira, Aginagan geratzeko aukera gehiago izango zituzten eta jendea hemen geratuko zen”, Maria Angelesen esanetan.

Orain, ia “ez dago etxerik hona bizitzera etortzeko”, Arrutiren esanetan. Udala Aginagako herriarekin etorkizuneko lantzen ari den plangintza giltzarria izan daiteke joera hau iraultzeko. Gauzatzen denean, “iruditzen zait biztanleria gehituko dela”.

Herri biziaren alde lanean

Bestela, beste hainbat auzo eta herri txikitako hustutze fenomeno bera eman daiteke bere ustez. Azken urteotan nabaria izan da, urte luzez Aginagako herri bizitzaren ikur izan diren zenbait komertzio edota tabernen itxiera. Eta baserriak badien arren, hamarkadotan izan den bizimodu aldaketa; gutxi batzuk baino ez dira baserritik bizi direnak.

Momentuz halere, gaurkoz eskola bizia du Aginagak. Baita aginagarren bilgune diren Sekaña edota jubilatutako elkarteak, eta urte osoan herri bizia izateko lanean diharduten herri eragile ezberdinak.

Datu bilketa berria, 2020an

Sortzez Aiakoa, ia bost hamarkada daramatza Aginagan bizitzen. Begi bistakoa da Maria Angeles Arrutik bizilekua duen Aginagaz duen ezagutza sakona. Hirugarren datu bilketa du honakoa. Bi urtero egin hasi zen. Hurrengoa, “ondo naitela”, 2020an egin asmo du. Hurrengo azterlana findu nahi luke. “15-60 adin tartea bitan zatitu nahi nuke; 15-40 eta 40-60 urte artean, gazteen eboluzioa ikusten joateko”, Arrutiren esanetan. Ordura arte, hemen dituzue 2018an bildu zituen datu nagusiak. 2016koak ere gogora ekarri nahi izan ditugu:

2018ko datu bilketa

- Biztanleak: 471.
- Hildakoak: 7.
- Jaiotzak: 2.
- Emakumezkoak: 220.
- Gizonezkoak: 251.
- Adinaren arabera: 16 urtetik beherako 73 biztanle; 16-60 urte arteko 254; 60-80 urte arteko 117; 80-100 urte arteko 27 (haietatik 9, 90 urtetik gorakoak).
- Etxebizitzak guztira: 109.
- 23 baserri: 6 Intxaurretan; 12 mendian; 2 Sekaña gainean; goiko Kaxkoan 1; beheko Kaxkoan 2.
- 86 etxe: 4 Intxaurretan; 4 mendian; 10 Sekaña gainean; 23 goiko Kaxkoan; 45 beheko Kaxkoan.

2016ko datu bilketa

- Biztanleak: 445.
- Adinaren arabera: 0-15 urte arteko 65 biztanle; 16-60 urte arteko 237; 61-80 urte arteko 110; 81-100 urte arteko 33.



Maria Angeles Arruti, Aginagako herri erdigunean.

Asier Azpiroz, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-laurdenetan

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren zazpi-garren eta azken final-zortzirena aurreko astean jokatu zen Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxean. Saio horren ondoren, erabakita geratu da final-laurdenetako kantarien zerrenda. Tartean izango da Asier Azpiroz zubietarra.

Zuzenean sailkatuak:

Haritz Mujika Lasa.
Beñat Iguaran Amondarain.
Beñat Lizaso Alberdi.
Gorka Maiz Alustiza.
Unai Mendizabal Jauregi.
Ane Labaka Mayoz.
Mikel Artola Izagirre.

Puntuazioz sailkatuak:

Jokin Uranga Isuskiza.
Nerea Elustondo Plazaola.
Eñaut Martikorena Lizaso.
Maidar Arregi Markuleta.
Unai Muñoa Amundarain.
Iñigo Mantzisor Larrañaga.
Ander Lizarralde Jimeno.



Andoingo final-laurdenean arituko da Asier Azpiroz. Larunbat honetan, 17:00etatik aurrera, Bastero Kulturgunean.

Maialen Akizu Bidegain.
Iñaki Gurrutxaga Zubimendi.
Felix Zubia Olaskoaga.
Unai Gaztelumendi Arandia.
Asier Azpiroz Iztueta.
Iban Urdangarin Lardizabal.
Iñigo Izagirre Urteaga.
Mikel Tapia Aierbe.
Amaia Iturriotz Etxaniz.
Ane Zuazubiskar Iñarra.

Andoingo final-laurdena

Larunbat honetan hasiko

dira final-laurdenak eta lehen kanporaketan kantatuko du Asier Azpirozek.

■ Urriak 19 larunbata.

■ 17:00etan.

■ Andoingo Bastero Kulturgunean.

■ Bertsolariak: Iñaki Apalategi Astigarraga, Beñat Iguaran Amondarain, Unai Mendizabal Jauregi, Eñaut Martikorena Lizaso, Asier Azpiroz Iztueta, Iban Urdangarin Lardizabal.

Zumalakarregiren inguruko jardunaldia antolatu du Nafartarrak taldeak

“Zumalakarregi ta Bere Garaia” izeneko jardunaldia antolatu du Nafartarrak Kultur Taldeak azaroaren 9rako Sute-gin. Pertsona honen inguruko ezagutza sakontzeko eta bere garaia eta testuinguru historikoa hizpide duen egun osoko egitaraua osatu dute.

Azaroak 9, larunbata

■ 9:00-9:30 Akreditazioak.
■ 9:30-10:00 Sarrera: Joseba Tapia eta Idoia Arrieta.
■ 10:00-10:45 Zumalakarregi, ezagutza, Dulantziko guda eta taktika militarra. Fernando Sánchez Aranaz (Erdaraz).

■ 10:45-11:30 Zumalakarregi, ikurra eta izatea. Mikel Sorauren (Erdaraz).
■ 11:30-12:00 Atsedena.
■ 12:00-12:45 Komunalak eta auzolana. Patxi Zabaleta.
■ 12:45-13:30 Euskararen egokera XIX. mendearen lehen erdian. Juanxo Madariaga.
■ 14:00-16:00 Bazkaria.
■ 16:00-16:15 Bideoa: Foruen deuseztatzea. Xabier Irujo.
■ 16:15-17:45 Mahai-ingurua: “Euskal populazioaren karlismoarekiko atxikimenduaren arrazoiak”.
Parte hartzaileak: Asisko Urmeneta (marrazkilaria eta

idazlea), Mikel Alberdi (Ormaiztegi Zumalakarregi Museorekin zuzendaria).

Moderatzailea: Eneko Bidegain (irakaslea Mondragon Unibertsitatean).

■ 17:45-18:00 Ondorioak eta itxiera: Idoia Arrieta (Historian Dokorea).

■ Izen ematea:

10 euro (bazkariarekin 30 euro).
info@nabarralde.com

aihert@gmail.com

■ Antolatzailea: Nafartarrak Kultur Taldea.

■ Laguntzaileak: Nabarralde, Usurbilgo Udala eta Martin Ttipia.

Azpidatzien tailerra, Harria Hitz bisitan

2017ko udazkenean inguruetan “Oreina” filma grabatu zuen Koldo Almandoz zinegile donostiarrak gure artera bueltan datorkigu, oraingoan, urriaren 26ko Harria Hitz bisita gidatuaren baitan ospatuko den “Argazpitu-luak” tailerra eskaintzeko.

Ekimen berezi honen xehetasunak antolakuntzak dakartza: “Kale arte jarduerak bat da. Oso xumea eta minimala. Herriaren eza-guerarekin, ironiarekin eta zentzu bikoitzekin jolasten duena. Herritarrek egin eta herritarrentzat. Ez du trazarik utziko edo gunerik zikinduko baina herria begi berriekin deskubritzeko aukera emango du, herriko elementu ezberdinei azpitu-luak jartzen arituko baidakara”.

Urriak 26, larunbata

■ 12:30 Harria Hitz bisita gidatua herrigunean.

■ 16:00-19:00 “Argazpitu-luak” tailerra Koldo Almandozekin, Dema plazatik abiatuta.

■ Izen ematea: aurrez, 5 euro. 688 818 017 edo info@kultour.pro

■ Oharra: plaza kopuru mugatua.

■ Informazio gehiago: harriahitz.eus

■ Antolatzailea: Udala.

■ Bideratzailea: Ereiten.

Txokoaldeko filma, Sitgesen

“Ventajas de viajar en tren” Aritz Moreno zinemagile donostiarraren estreinatuko luzemetraia proiektatu berri dute egunotan Sitgesen ospatu den Kataluniako 52. Zine Fantastikoaren baitan. Film honetako hainbat sekuentzia Txokoaldeko Torrea eraikinean grabatu zituzten urte hasieran. Azaroaren 8an zine aretoetan estreinatuko dute.

Bizi ohitura osasuntsuen alde mugitzeko deia

Bizi ohitura osasuntsuen alde mugimenduan jar-tzera animatzen gaitu Usurbilgo Udalak aste hasieran Potxoenean aurkeztu zuen “Usurbil Suspertu” egitasmo berriarekin. Urriaren 16az geroztik jarduera fisikoa egiteko ohitura sustatzeko doako aholkularitza zerbitzu pertsonalizatu berria eskaintzen hasi da, osasun nahiz kirol munduko eragile ezberdinen arteko elkarlanari esker.

Aholkularitza zerbitzua, egunerokoan, ohituraz jarduera fisikoa egiten ez duten herritarrei zuzendua eta norbere beharretara egokitua egongo da. “Mugiment” izena du, Gipuzkoan Eusko Jaurlaritzak, Osakidetza eta Foru Aldundiak sustaturiko egitasmoak, jada 16 herrietan martxan dena. Usurbila Udalak ekarri du, eta hemen, “Udalak eta Osakidetza eskainiko dute zerbitzua, anbulatorioaren eta Oiardo Kiroldegia kolaborazioarekin”.

Beharra duten kolektiboak, bizi ohitura osasuntsuetara bideratzeko

“Usurbil Suspertu” lelopean garatuko den programak “jarduera fisikoren preskripzio, orientazio eta aholkularitza” zerbitzua eskainiko du asteazkeneko lau orduz. Ezinbestekoa eta “gizartean eragiteko tresna paregabea dela iruditzen zaigu, batez ere beharra



Udalak eta Osakidetza eskainiko dute zerbitzua, anbulatorioaren eta Oiardo Kiroldegia kolaborazioarekin.

EUSKADI MUGIMENT

“Bizi ohituretan jarduera fisikoa txertatzea da lortu nahi duguna, herritarren ongizate eta osasunean positiboki eraginez”

duten kolektiboetan bizi ohitura osasuntsuak sustatzeko bidean”, udaleko kiroltako zinegotzi Beñat Larrañagaren esanetan.

Euskadi Mugiment proiektua

“Euskadi Mugiment” izeneko proiektuan kokatua dago “Usurbil Suspertu”. Aholkularitza zerbitzuon bidez, “beraien bizi ohituretan jarduera fisikoa txertatzea da lortu nahi duguna, beraien ongizate eta osasunean positiboki eraginez”, Mugiment programako idazkaritza teknikoko ordezkari Malen Ruiz de Azuaren esanetan.

Norberari egokitua

Ia denok edo denok anbulatorioa joan beharrean aurkitzen gara inoiz. Osasun etxean profesionalarekin egonda, programa honen testuinguruan “bere osotasunean artatzen dute, bere baldintzatzaile guztiekin. Uste dugu hori dela egitasmo honek arrakasta izateko gakoa”, zioen Potxoenean Osasun Publikoko Osasun Sustapeneko teknikari Arantxa Urangak. Erabiltzaileentzat soilik ez, osasun alorreko profesionalentzat egitasmoak duen garrantzia azpimarratu zuen ESI Donostialdeko ordezkari Maria Jose Goñik, haiek baitira egitasmo honen onuradun izan daitezkeen herritarrak baloratu eta identifikatzeaz arduratuko direnak. “Laguntza oso oinarritzkoa da aktiboak ez diren pertsonentzat” bere esanetan, onuragarria “bizitza aktiboagoa izateko, ongizate fisiko, emozional eta psikikoan la-

guntzeko”.

Artatzen ari den herritarrari jarduera fisikoa egitea komeni zaiola iruditzen bazaio medikuari, hala egitea gomendatu eta Irati Ibarbia teknikariak eskainiko duen aholkularitza zerbitzura bideratuko du.

Asteazken goizetan izango da Irati Ibarbia, 9:00-11:00 artean Oiardo Kiroldegian eta 11:00-13:00 artean anbulatorioan. “Jendea askotan ez da herrian dauden baliabideak erabiltzera ausartzen edo ez du ezagutza jarduera fisikoari buruz. Gure asmoa orientatu edo laguntza eskaintzea da. Osasun arazo bat baldin badu, onuragarria izango zaion jarduera fisikora bideratzea, eta zubi lanak egitea herriko kirol elkarte eta bestelako gizarte zerbitzuekin”, Ibarbiaren esanetan.

Hobariak

Erabiltzaileak bi urteko jarraipena jasotzeko aukera izango du. “Usurbil Suspertu” bonoa emango zaio, “ordainpekoak diren kiroldegiko ikastaro, tailer eta klubetako entrenamenduetarako. Aholkulariak gomendatutako jarduera ondo datorkion frogatzeko aukera emango dio bonoak pazienteari. Bono horrekin, izan ere, doan erabili ahal izango ditu kirol instalazioak, epe batean: hori amaitzean, jarraitu nahi izanez gero, bere kabuz izena eman eta ordaindu beharko du desio duen hori”.

“Larriagoa da egoera pobrezia arriskuan den populazioan”

Udal sail ezberdinen arteko lankidetzari esker gauzatu da egitasmoa. Elkarlan horretara batu da baita Foru Aldundia ere.

“Gehiago zentratu izan gara dagoeneko aktiboak izan nahi

zuten pertsonetan. Azken al-dian ahalegin berezi bat egiten ari gara, aktiboak izateko zailtasunak dituzten pertsonengana hurbildu eta erraztasunak jartzeko”, Diputazioko ordezkari Iñaki Iturriozek Potxoenean zioenez.

Hirutik bat

Datuek ere ahalegin hori egitera bultzatzen dute Foru Aldundia. “Gipuzkoan hiru pertsonatik batek ez du lortzen jarduera fisikoa ohituraz egitea, emakumeetan zertxobait gehiago. Larriagoa da egoera

pobrezia arriskuan den populazioan. Kasu honetan %45ak ez du lortzen maila horretara heltzea”.

Horregatik “erronkak me-rezi du” zioen, “ia Usurbilen ere lortzen dugun pertsonen onurarako izatea”.

Aginagako banderak Oriorentzat

Lau urteko etenaldia eta gero sasoi betean itzuli ziren, Jai Batzordea 2007an antolatzen hasitako estropadak Aginagako festetara. Denboraldia amaitu berri duten punta-puntako arraun taldeak bildu zituen urriaren 12ko hitzorduek errioren; 70 arraunlari lehiatu ziren; 28 emakume, 42 gizonezko. "Aginagak historikoki arraunarekin izan duen loturaren erakusle dugu gaurkoa. Kontxako bi banderren jabe. Gaur egun arraunlari bikainen esportatzaile traineru desberdinetan", Jai Batzordetik gogorarazi zuten.

Lehia bizia

500 metroko eremuan 4 ziaboga egin behar zituzten lehiakideek, guztira 2 kilometroko bidea osatzeko. Biziena Orio izan zen, bai emakumezko zen gizonezkoen txapelketetan. Aginagako bi banderek honenbestez alboko herrian amaitu dute.



Emakumezko zein gizonezkoen trainerila txapelketetan Orio nagusitu zen. Ondoko irudian dituzue bi taldeak banderak astintzen. Atzean Aginaga.

Emakumezkoen 4. Trainerila Txapelketa

- 1-Orio 9:15
- 2-Ondarroa 9:43
- 3-Hondarribia 9:52
- 4-Donostia 10:08

Gizonezkoen 10. Trainerila Txapelketa

- 1-Orio 7:59
- 2-Hondarribia 8:04
- 3-Ondarroa 8:10

- 4-Zarautz 8:17
- 5-Donostia 8:19
- 6-Aginaga 8:52

Zubieta, erreboteko finalean

Zubieta eta Hazparneko Noizbait taldeak Endika Abril Errebote Txapelketaren finala jokatuko dute. Igandean, urriaren 20an, 11:00etan Villabonan.

Aginaga, txalotuena

Erriora agertu orduko jaso zuten etxeko berotasuna, larunbateko estropadekin batera itzuli baitzen Aginaga arraun taldea Oriara. Asier Puertas, Gorka Puertas, Ander Agirre, Erik Aranburu, Oihan Gozategi, Josu Ostolaza eta patroilari lanetan aritutako Markel Eizagirre Beloki, kideok osaturiko taldeak gogotik ordezkatu zuen Aginaga estropadetan. Ezin izan zuten bandera etxeratu, baina bertaraturikoen saria eraman zuten; babes osoa eta animu guztiak.



Onena eman zuten. Bandera ez zuten eskuratzetik izan, baina erriberetan bildutakoen saria irabazi zuen Aginagak.

Eskubaloia Oiardon

Urriak 19, larunbata

Eskola Kirola

■ 9:30 Infantil neskak:

Udarregi B-Urnieta

■ 11:00 Infantil mutilak:

Udarregi A-Eibar

Futbola Haranen

Urriak 19, larunbata

■ 9:30 Eskola Kirola:

Udarregi-Urnieta K.E.

■ 11:45 Infantilak:

Udarregi F.T. B.-Udarregi F.T. A

■ 12:30 Areto futbola Oiardon:

Usurbil F.T.-Eskoriatza

■ 16:30 Erregionalak:

Usurbil F.T.-Urola KE

Urriak 20, igandea

■ 10:00 Kadete neskak:

Usurbil F.T.-Urnieta K.E.

Giza proba, jakiekin

Azaroaren leko Artisanu Azoka ostean, arratsalde pasa ederra izango dugu frontoi ondoko Dema plazan. 17:00etan hasita, "Ur-Epel" harriarekin giza proba ikusgarria ospatuko da, Usurbilgo herri kirolen antolatzaileen eskutik. 1.800 kiloko harriari tiraka lehiatuko dira hiru talde mixto bizkaitar: Txorierri Herri Kirol Taldea, Lasuen eta Leioako Euskal Kirol Zaleak. Ekitaldirako sarrera 5 eurotan izango da salgai.

Sukaldaritza txapelketa

Giza probarekin batera, udalerri mailako sukaldaritza lehiaketa antolatu dute herriko hiru jubilatuek elkarrekin. Eguzki, Mahaspildegia, Andatzpe, Atarialde eta Ibai-Ondo elkarte gastronomikoen laguntzaz.

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA • ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalearren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berriua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berriua berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharra bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxebizitza baten bila gabilta. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua.

651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurran.

rra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramuntokalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegiaren. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxea-rekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzaileak behar dira Aratz erretegiaren. info@restaurantearatz.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketari lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest.



Zorionak Dane!! Urriaren 15ean, 9 urte egingo dituzu. Ondo ospatu zure eguna. Muxu asko etxekoan partez.

Heriotzak

Jose Mari Zubillaga Garmendia

71 urterekin hil zen urriaren 8an Usurbilen



ARRANDEGIA PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

ETXETRESNEN KONPONKETAK eta SALMENTA
MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER Usurbil

ADA -MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketara, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska

bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtrartetik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen,

umeak zaintzen edo garbiketara. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Segituan lanean hasiko nintzake.

637106649.

BESTELAKOAK

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. Interesa duenak deitu: 699 421 238 Iñigo.

AEG markako 8 kiloko lehorgailua salgai. Oso gutxi erabilia. 616 273 785.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurriko da eta berri berria dago. 650 027 123.

Urtea zehar ingeleseko klaseak ematen ditut, etxeetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesez arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaleak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaia! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 17 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 18 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 19 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 21 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 22 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 23 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Urriak 17 - Urriak 27

Osteguna 24 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 25 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 26 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 27 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urria

16 asteazkena

- Aire kalitatearen inguruko azterlanaren aurkezpena. 19:00etan Potxoenean.
- Maria Jesus Etxeberriaren argazki erakusketa. 16:30-19:00 Sutehin.

17 osteguna

- Udalbatzaren ezohiko osoko bilkura. 18:00etan udalbatza aretoan.
- Maria Jesus Etxeberriaren argazki erakusketa. 16:30-19:00 Sutehin.

18 ostirala

- Hitzaldia: "Zubieta eta Ispasterko energia esperientziak". 19:00etan Potxoenean.
- Hitzaldia: "Mitoak eta egiak sexologian". 19:00etan Santuenea Elkartean.
- Maria Jesus Etxeberriaren argazki erakusketa. 12:30-12:30 Sutehin.

Joseba Tapiaren emanaldi bikoitza Sutehin

Disko berria zuzenean grabatuko du urriaren 25ean Sutehin Joseba Tapiak eta 20 urteko bakar-kako ibilbidearen ostean sortu duen talde berriarekin. Kultur etxeko auditorioko oholtza gainera igoko dira Tapiarekin batera 9 musikariok: Jon Celestino (tronpeta), Ibon Irixoa (saxoa), Asier Ituarte (tronboia), koroetan Leire Berasaluze, Kristina Aranzabal eta Nerea Erbiti, Jexux Aranburu "Txus" (teklatuak), Iñigo Telletxea (baxu elektrikoa) eta Iker Uriarte (jazzpana).

Emanaldi berezi honen baitan bi saio iragarri ditu, 20:00etan lehen kontzertua, 22:30etan bigarrena, kultur etxe-



Urriaren 25ean, 20:00etan eskainiko du lehen kontzertua Sutehin; 22:30ean bigarrena.

ko auditorioan. Gogoan izan, astebete barru. Sarrerak aurrez eskuratu ahalko dituzue 10 eurotan Bordatxon, Txirritran, Lizardin eta NOAUA! K.E.-ren egoitzan. Edo egun berean 13 eurotan Sutehin bertan.

Sagardo ozpinaren inguruko jardunaldia

Urriaren 23an Dani Lasa sukaldariarekin eta Jakoba Errekondorekin, arratsaldeko 19:00etan Aitzaga Elkartean. "Nola egin ozpina? Zer ozpin motak egin daitezke? Nola erabili sukaldian ozpina? Ozpin dastaketa. Ozpinarekin egindako plater ugariaren dastaketa. Etxean ozpina egiten hasteko ozpin ama banatuko da".

Izen ematea:

943 361 114

alkartasuna@usurbil.eus



Jakoba Errekondo eta Dani Lasa (argazkikoa) sukaldariaren eskutik. Urriaren 23an, Aitzagan.

Datozenak

Tailerrak Aginagan

Ekoplastilina, artilea eta kandelak lantzeko 5 urtetik gorako haur eta gaztetxoentzako doako tailerrak antolatu ditu Antxomolantxa kultur elkarteak, urriaren 26an, 16:30-19:30 artean Aginagako ludotekan.

Kantu-jira

Euskal kantutegiari kalejiran ahotsa jartzeko hitzordua bueltan. Datorren kantu-jira urriaren 26an 12:30etan Mikel Laboa plazatik abiatuta. Ez ahaztu kantu-liburuxka eramatea.

24. Artisau Azoka

Azoken hilabetea izan ohi dugun azaroa, artisauen postu sortarekin ekingo diogu hilaren 1ean. Aitzaga Elkartek antolatuta 24. Artisau Azoka eguerdian frontoian. Eskuz eginiko denetariko sortze lanak ikusi eta eskuratzeko aukera, hamaiketako ederra dastatzearekin batera.

Giza proba eta sukaldaritza lehiaketa

Azoka osterako arratsalde pasa boro-bila antolatu da. 1.800 kiloko harriarekin ospatuko den proba arratsaldeko 17:00etan dema plazan, eta horrekin batera hiru jubilatutako elkarteek antolaturiko sukaldaritza lehiaketa.

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENE taberna

Kale Nagusia 35, Usurbil

ARATZ

zabaleta anaiak




30 urtez baserritar eta arrantzaleekin zuzenean lan egiten
·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04

PSU
serigrafia



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industria serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

31 ETXEBIZITZA USURBILEN, UGARTONDO AUZOAN



ZURE ETXEA IZAN LITEKE Ez galdu aukera hau

Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukaldea



Pertsonalizazioa



Garajea

943 30 29 20

www.sukia.com



Zure etxean zaude

Finantziatuta

